

NBEk Mendebaldeko Sahararako erabakia atzeratu egin du

NEW YORK

Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Segurtasun Kontseiluak bihar arte atzeratu du Mendebaldeko Saharako egoerari buruzko erresoluzioaren erabakia, Javier Perez de Cuellarrek erakunde honetako idazkari nagusiak aurkeztutako informearen eztabaidan sorturiko desberdintasunen ondorioz.

De Cuellarrek aurkeztutako informeari ados egon arren, informe horren eranskinek sortu zuten eztabaida. Identifikazio Komisioren lanei dagozkien aginduak jasotzen dituzte eranskin horiek, eta estatu ez alienatuen iritzi, kontsultatu edo negoziatu gabeko aldatetarik daude eranskin horietan.

Mendebaldeko Saharako autodeterminazio erreferendumaren plangintzaren arabera, «boto eskubidea izateko 1974ean Espainiak egin zuen zentsuan agertu behar da bere izena edo bestela

Identifikazio Komisia konbentzitu behar du jatorriz Mendebaldeko Saharako izanik bere izena ez zela 1974eko zentsuan jarri».

Agindu berrien arabera, erreferendumean boto eskubidea dutenen identifikazioa «sahararrek oso ondo ezagutu eta erabiltzen dituzten identifikazio agiriak erakutsiz egingo da eta ahozko testimonioak ere onartuko dira».

Espainiak bere kolonia ohian 1974ean egin zuen zentsuan 73.497 sahararren izenak sartu zituen eta 32.516 nortasun agiri nazional banatu zituen 1970 eta 1976 urteen artean. Polisario Fronteak behin eta berriro salatu du Marokkoko Gobernuak Mendebaldeko Saharara marokkoar asko bidali dituela erreferendumaren emaitzak aldatu asmoz. Marokkok Espainiako zentsoa erabiltzeko jarri dituen trabak ere handiak izan dira, eta NBEko begiraleei Saharan zehar egin beharreko lanetan oztupo ugari jarri dizkie.


Bosnia Herzegovina eta Mazedonia ere independentzia eskaerekin

EKri beren eskaria egingo diote Eslovenia eta Kroaziarekin batera

Datorren urtarrilaren 15ean Europako Komunitateak Eslovenia eta Kroaziaren independentziak onartuko ditu, eta gauza bera exigitzen duten Jugoslaviako beste edozein errepublika ere bai, aurretik ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Bihar bere independentzia onartzea nahi duten errepublika guztiek beren eskakizuna egingo diote EKri. Bosnia Herzegovina eta Mazedoniak ere aurrera egin nahi dute bere independentziarekin.

K.ALDABE / DONOSTIA

Bosnia Herzegovinak, gehiengo musulmaneko errepublika jugosla-



Kroaziako gerra beste errepubliketara ere zabal daitekeenaren beldurra dago.

viarrak oso zail dauka independentziarekin aurrera segitzea errepublika barnean gerra zibilik eduki gabe. Izan ere bertoko biztanleen % 31 serbiarra da eta Serbiarekin Estatu berdinean segitzeko eskubidea exigitzen dute, Jugoslavia murriztuago batean bada ere. Bosniak herenegun erabaki zuen Europako Komunitateari bere independentziaren onarpena egiteko eskatzea, lehendakari-tza Kontseiluaren gehiengoak aldeko botoa eman ondoren, baina boto serbiarren oposizioarekin.

Bosniako Gabineteko ministro serbiarrak zeharo kontra daude beren kide musulman eta kroaziarrak (biztanlegoaren % 61) Bosniaren independentzia aldarrikatzearekin. Atzo ageri egin zuten komunikatuan Bosniako ministro serbiarrek adierazi zuten «Bosniako herri serbiarrak ez duela onartuko beste Estatu batean minoria izatea, Estatu jugoslaviarreko sei herrietako bat izan ondoren».

Honek Bosniari «Kroaziaren lu-

rralde zerga bera suposatzen dio: serbiarrak bizi diren eskualdeak Bosniatik bereizi ala gerra egongo da» zioten. Adituek uste dute Bosnia Jugoslavia zenaren errepublikarik gatazkatsuen dela eta bertan ondorio ezagunik gabeko gerra egon daitekeela, kroaziarrak musulmanak eta serbiarrak bizi direlako han.

MAZEDONIA Bere independentziarekin aurrera egin ezker gatazketatik iragateko beldurra duen beste errepublika Mazedonia da. Izan ere Greziak lurralde eskaera egin diezaioke errepublika honi. Kontutan hartu behar da Greziak sarritan salatu duela Mazedonia «helenismo garai-ko izenik ezagunetarikoa ebasteagatik».

Iturri politikoa kroaziarrak komentatzen dute Greziak eta Serbiak, historikoki aliatuak izan direnak Mazedonia elkarbanatzeko prest egongo liratekeela, Bulgaria Handiaren nahiari bideak mozteko.



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Unibertsitatearen Erreformatarako Legean eta berau garatzen duten xedapenetan ezarritako arauera, deialdi honen Eranskinean aipatzen diren Behinbehineko Irakasle Titularren plazak hornitzeko merezimendu-lehiaketa publikorako deialdia egiten du, dagozkien jakintz arloen beraien gaien irakaskuntza, eta horrela behar izanez gero, ikerkuntza eginkizunak betetzeko.

Lehiaketak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 115. artikuluan ezarritako Kontratazio-Batzordeak epaituko dituzte.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, dagokien eskaria bidaliko diote Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektore Jaunari, behar bezala betetako instantzia-curriculumaren bidez, bai eta, horrekin batera, N.A.N.aren fotokopia ere. Unibertsitateko Irakasle Titularren plazetara aurkeztu ahal izateko ezinbesteko betebeharrak da Doctore tituloaren jabe izatea. Honako titulu hau parekatu aurkeztu behar da. Curriculumetan aipaturiko merezimenduak dokumentalki frogatu behar dira dagokien fotokopiekin.

Plaza elebidunen lehiaketara aurkeztu ahal izateko, Unibertsitateko Gobernu-Batzarrean 1988.eko Uztailaren 27ko Ekitaldian onetsirik arautegiaz bat etorririk, Euskaraz irakasteko gaitasuna frogatuko duen aurretiko proba zehatza galditu behar da, eta honetarako ahozko adierazpena eta ariketa idatzia burutu behar dira Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektoreak izendaturiko Batzordearen aurrean. PLAZA ELEBIDUN HAUETAN PARTE HARTUKO DUTEN GORAKOEI AIPATURIKO PROBA EGITEKO DEI EGITEN ZAIE, 1992.eko URTARRILAREN 20ko 10etan, UPV/EHU.aren ERREKTOREGOKO BATZARRE-ARETOAN, LEIOAKO CAMPUSEAN, BIZKAIAN.

Instantzia-curriculumaren ereduak Eranskinean azaltzen diren ikastegien Idazkaritzetan emango dira, eta parte hartuko duten plaza bakoitzeko instantzia eta dokumentazioa aurkeztu behar da.

Instantziak aurkezteko epea aurteko Abenduaren 30eko 13 orduetara amaitzen da eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira. Errektoregoaren Eraikina, 1. solairua, Leioako campusa, Bizkaia, edo Campusetako Errektorordetzatan; Gipuzkoako Campuseko Errektorordetzatan: Urbieta K./30. Donostia eta Arabako Campuseko-Errektorordetzatan, Manuel Radier K./6. Gazteiz.

Lehiaketa hauen erabakia Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Lehiaketa-Ataleko, Campusetako Errektorordetzako eta dagozkien ikastegietako iragarki-tauletan argitaratuko dira.

Deialdi honi buruzko azalpenetarako jo Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Lehiaketa-Atalera; Errektoregoaren Eraikina, 1. solairua, Leioako Campusa (Bizkaia).

Leioan, 1991ko Abenduaren 22an Errektorea, Juan Jose Goiriena de Gandarias y de Gandarias

BEHINBEHINEKO IRAKASLE TITULARREN IZENDAPENAK ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA Arabako Campusa

Industri eta Topografi Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate-Eskola. Gasteiz.

Orden Zkia.: 127. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Adierazpen Grafikoa eta Ingenieritzaren Proiektuak. Jakintz Arloa: Ingenieritzaren Proiektuak. Egin beharreko iharduerak: Industri Irudigintza eta Industri Bulego Teknikoa. Arduraldia: Osoa.

Filologi, Geografi eta Histori Fakultatea. Gasteiz.

Orden Zkia.: 128. Kategoría: Unibertsitateko Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ingeles eta Alemaniako Filologia. Jakintz Arloa: Ingeles Filologia. Egin beharreko iharduerak: Ingeles Hizkuntza. Arduraldia: Osoa.

Bizkaiko Campusa

Industri eta Telekomunikazio-Ingeniarrien Goi Eskola Teknikoa. Bilbo.

Orden Zkia.: 129. Kategoría: Unibertsitateko Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ingenieritza Mekanikoa. Jakintz Arloa: Eraikuntzaren Ingeniaritza. Egin beharreko iharduerak: Industri Eraikuntza eta Arkitektura. Hiri-Sistemen Ingeniaritza. Arduraldia: Osoa.

Gizarte-Graduamen Unibertsitate Eskola. Bilbo.

Orden Zkia.: 130. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Soziologia. Jakintz Arloa: Soziologia. Egin beharreko iharduerak: Soziologia Orokorra. Arduraldia: Osoa.

Meatz Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate-Eskola. Barakaldo.

Orden Zkia.: 131. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Adierazpen Grafikoa eta Ingenieritzaren Proiektuak. Jakintz Arloa: Ingenieritzaren Adierazpen Grafikoa. Egin beharreko iharduerak: Irudigintza I. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 132. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Adierazpen Grafikoa eta Ingenieritzaren Proiektuak. Jakintz Arloa: Ingenieritzaren Adierazpen Grafikoa. Egin beharreko iharduerak: Irudigintza I. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 133. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Fisika Aplikatua I. Jakintz Arloa: Fisika Aplikatua. Egin beharreko iharduerak: Fisika. Elebiduna: Euskara/Gaztelania. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 134. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ingenieritza Kimikoa eta eta Ingurugiroarena. Jakintz Arloa: Ingenieritza Kimikoa. Egin beharreko iharduerak: Kimika Elebiduna: Euskara/Gaztelania. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 135. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Matematika Aplikatua. Jakintz Arloa: Matematika Aplikatua. Egin beharreko iharduerak: Kalkulo Infinitesimala eta Algebra Lineala (lehenengo plaza). Elebiduna: Euskara/Gaztelania. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 136. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Matematika Aplikatua. Jakintz Arloa: Matematika Aplikatua. Egin beharreko iharduerak: Kalkulo Infinitesimala eta Algebra Lineala (bigarren plaza). Elebiduna: Euskara/Gaztelania. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 137. Kategoría: Unibertsitateko Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ekonomi Análisiaren Oinarriak. Jakintz Arloa: Ekonomi Análisiaren Oinarriak. Egin beharreko iharduerak: Makroekonomia. Arduraldia: Osoa.

Gipuzkoako Campusa

Enpresa-ikasketen Unibertsitate-Eskola. Donostia.

Orden Zkia.: 138. Kategoría: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ekonomia Aplikatua. Jakintz Arloa: Ekonomi Aplikatua. Egin beharreko iharduerak: Finantz Eragiketen Matematika. Arduraldia: Osoa.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Donostia.

Orden Zkia.: 139. Kategoría: Unibertsitateko Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Didaktika eta Eskola-Antolakuntza. Jakintz Arloa: Didaktika eta Eskola-Antolakuntza. Egin beharreko iharduerak: Adimenez Gutxituen Pedagogia. Arduraldia: Osoa.



PANAMAKO inbasioaren urteurrenean, jende ugari irten zen kalera Estatu Batuen «inperialismoa salatuz». Inbasio horretan, EEBBek Manuel Antonio Noriega jenerala atxilotu zuten. Argazkian ikusten diren monje budista bi horiek Panama hirian 7.500 pertsonen parte hartu zuten manifestaldian doaz. Manifestaldiez gain, bomba batek lehertu zuen egun horretan eta EEBBen enbaxadan kalte txikiak eragin zituen. Bomba horren ardura M-20 taldeak hartu zuen beregain.